

ARALAR GASTEIZ

GASTEIZEN
GELTOKI INTERMODALA ERAIKITZEKO
ETA TRENBIDEA LURPERATZEKO
PROPOSAMENA

Gasteiz, 2010eko maiatza

Aralar Araba	Aralar Bizkaia	Aralar Gipuzkoa	Aralar Nafarroa
Izarduy komandantea 7 01006 Gasteiz Tel: 945 15 42 20 Faxa: 945 15 42 20 www.aralar-araba.net araba@aralar.net	Aretxabaleta 4, 1. 48010 Bilbo Tel: 94 421 28 56 Faxa: 94 421 25 01 bizkaia@aralar.net	Pedro Egaña 10 20006 Donostia Tel: 943 47 19 55 Faxa: 943 47 06 36 gipuzkoa@aralar.net	Aduanaren txokoa 16-18 31001 Iruñea Tel: 948 20 63 62 Faxa: 948 20 60 03 nafarroa@aralar.net
www.aralar.net			

AURKIBIDEA

Beharrezkoa den eztabaida	3
Intermodala eta lurperatzea, proiektu positiboak gasteiztarrantzat	3
ARALAR GASTEIZ-en ondorioak Udalaren proiektuari buruz	4
ARALAR GASTEIZ: Gure proposamena	6
Aurrekariak	6
Gaurko trenbidearen azpitik lurperatzea eta geltoki intermodala Dato kalean	6
Intermodalitate osorako bidean	7
Funts publikoak behin betiko ekipamenduak eraikitzeko	7
Abiadura handia	8
AHT-a helduko balitz	8
Eztabaidaren momentua	9

Aralar Araba	Aralar Bizkaia	Aralar Gipuzkoa	Aralar Nafarroa
Izaola komandantea 7 01006 Gasteiz Tel: 945 15 42 20 Faxe: 945 15 42 20 www.aralar-araba.net araba@aralar.net	Aretxabaleta 4, 1. 48010 Bilbo Tel: 94 421 28 56 Faxe: 94 421 25 01 bizkaia@aralar.net	Pedro Egaña 10 20006 Donostia Tel: 943 47 19 55 Faxe: 943 47 06 36 gipuzkoa@aralar.net	Aduanaren txokoa 16-18 31001 Iruñea Tel: 948 20 63 62 Faxe: 948 20 60 03 nafarroa@aralar.net
www.aralar.net			

BEHARREZKO DEN EZTABAIDA

Trenbidearen lurperatze eta geltoki intermodalaren eraikitzeak bai Gasteizko fisonomian zein bizigarritasunean, baita biztanleon mugikortasunean ere izango duen eragina udalerrria gobernatzen duen klase agintariarentzako erronka handia izango da, eta gasteiztarrontzat ere bai.

ARALAR GASTEIZen arabera, funtsezkoa da bi proiektuen gainean eztabaida eta parte hartze prozesu bat irekitzea, gizarte maila anitzek proposatutako erantzukizun-ariketa gure gain hartzen.

Gaurko udal gobernuak, prozesu hori bultzatu ordez, saihesten saiatu da, Geltoki Intermodalaren kasuan talde eta estamentu herrikoi ugarik auzeratuak errefusatu.

Ez gara gogogabetu, eta beste erakunde batzuk hasitako ahaleginak jarraitzen, ARALAR GASTEIZek sektore sozial eta politiko guztiei luzatu nahi die dokumentu hau, aipatutako eztabaida eta parte hartze prozesurako gure ekarpena dena, eta defendatzen dugun hiri ereduarentzat alternatiba errealista, egingarri eta onuragarri baten oinarriak izango delakoan.

INTERMODALA ETA LURPERATZEA, PROIEKTU POSITIBOAK GASTEIZTARRONTZAT

Garraio publikoko sare erakargarri eta lehiakorra lortzeko nahian, eta hirian joan-etorrien zenbakia eta haien kontsumo energetikoa murrizteko ere, ARALAR GASTEIZek uste du intermodalitatea funtsezko kontzeptua dela herrialde osoaren komunikazioak hobetzeko eta optimizatzeko estrategia globalaren barruan.

Era berean, auzo bakoitzak besteekin lotura hobezina edukitzeko hiri eremuan, biztanleri osoak aprobeitza ditzaken aisialdi, gizarte elkarrekintza eta zerbitzu guneak irabazteko nahian, gaurko trenbidea deuseztatzea funtsezkoa izango da hesiak desagertarazteko eta gune publikoak berreskuratzeko.

Aralar Araba	Aralar Bizkaia	Aralar Gipuzkoa	Aralar Nafarroa
Izarduy komandantea 7 01006 Gasteiz Tel: 945 15 42 20 Faxa: 945 15 42 20 www.aralar-araba.net araba@aralar.net	Aretxabaleta 4, 1. 48010 Bilbo Tel: 94 421 28 56 Faxa: 94 421 25 01 bizkaia@aralar.net	Pedro Egaña 10 20006 Donostia Tel: 943 47 19 55 Faxa: 943 47 06 36 gipuzkoa@aralar.net	Aduanaren txokoa 16-18 31001 Iruñea Tel: 948 20 63 62 Faxa: 948 20 60 03 nafarroa@aralar.net

ARALAR GASTEIZ-en ONDORIOAK UDALAREN PROIEKTUARI BURUZ

Gasteizko biztanleei luzatutako argibide urria ikusita, badirudi Udalaren plana gaurko azpiegiturak (Dato kaleko geltokia eta lur gaineko trenbidea) denboralki moldatzea dela AHT-a heltze hipotetikoarentzat, eta horretarako milioika euro inbertituko du. Aldi berean, horrenbeste milioko inbertsioak egingo dira Geltoki Intermodala eraikitzeke eta trenbidea lurperatzeko, oraindik guztiz definitu ez diren proiektuak izan arren.



Ekonomikoaz gain, ingurugiro-kostu erraldoia ere erakarriko duten azpiegiturak (horietariko asko behin-behinekoak) eraikitzeke inbertsioak:

- Behin-behineko autobus geltokia Forondako Atean.
- Behin-behineko moldaketak Dato kaleko RENFE geltokian, AHT-a iritsi ahal izateko lur gainetik.
- Behin-behineko abiaduraren handiko trenbide tartea gaurko lur gaineko ibilbidea euskal Y-arekin lotzeko.
- Behin betiko tren geltoki bat Juan de Garay kalean.
- Behin betiko autobus geltoki bat tren geltokiarekin komunikatuta.
- Trenbidearen lurperatzea Zurbanoko Atetik Zabalgaraino 7 kilometroko tunelen bidez.
- Behin betiko abiaduraren handiko trenbide tartea euskal Y-a lotzeko Udalak proposatutako lurperatzearekin.
- Behin betiko ohiko trenbide tartea "ancho iberico" izeneko ibilbidea lurperatutako tunelekin lotzeko.

Aralar Araba	Aralar Bizkaia	Aralar Gipuzkoa	Aralar Nafarroa
Izarduy komandantea 7 01006 Gasteiz Tel: 945 15 42 20 Faxa: 945 15 42 20 www.aralar-araba.net araba@aralar.net	Aretxabaleta 4, 1. 48010 Bilbo Tel: 94 421 28 56 Faxa: 94 421 25 01 bizkaia@aralar.net	Pedro Egaña 10 20006 Donostia Tel: 943 47 19 55 Faxa: 943 47 06 36 gipuzkoa@aralar.net	Aduanaren txokoa 16-18 31001 Iruñea Tel: 948 20 63 62 Faxa: 948 20 60 03 nafarroa@aralar.net

Hau guztia atzeratze eta kapitalismoaren krisi larriaren testuinguruan, administrazioen diru-biltzea murriztu duena eta klase popularren kontrako zerga-neurriak erakarriko dituen.

Egoera honen aurrean, ARALAR GASTEIZ-ek kritika gogorra egiten die Udaleko proposamenei, haien defektu eta ezak salatzen eta, aldi berean, gizarteari alternatiba propioa luzatzen, ekarpen mota guztien zain. Honela eztabaida eta parte hartzea piztu nahi dugu, Gasteizko gobernu eta gainerako instituzioen astakeri berri honen bidez funts publikoetako xahutzea saihesteko asmoz.

Aralar Araba	Aralar Bizkaia	Aralar Gipuzkoa	Aralar Nafarroa
Izarduy komandantea 7 01006 Gasteiz Tel: 945 15 42 20 Faxa: 945 15 42 20 www.aralar-araba.net araba@aralar.net	Aretxabaleta 4, 1. 48010 Bilbo Tel: 94 421 28 56 Faxa: 94 421 25 01 bizkaia@aralar.net	Pedro Egaña 10 20006 Donostia Tel: 943 47 19 55 Faxa: 943 47 06 36 gipuzkoa@aralar.net	Aduanaren txokoa 16-18 31001 Iruñea Tel: 948 20 63 62 Faxa: 948 20 60 03 nafarroa@aralar.net

www.aralar.net

ARALAR GASTEIZ: GURE PROPOSAMENA

Aurrekariak

2001ean onartu zen EAEko Trenbideen Azpiegitura Antolatzeko Lurraldearen Arloko Planak Gasteizerako sarbideei buruz zera esaten zuen:

"Para el acceso a Vitoria-Gasteiz se plantea un trazado coincidente con el de la actual red ferroviaria Madrid-Irún.... Se prevé como Estación de Vitoria-Gasteiz para la Nueva Red Ferroviaria la ya existente Estación del Norte , en la calle Dato. Se considera imprescindible no perder la centralidad urbana que ofrecen la mayoría de las Estaciones ferroviarias, como es el caso, así como la coincidencia de las dos redes, la existente y la nueva en una misma Estación."


Gaurko trenbidearen azpitik lurperatzea eta geltoki intermodala Dato kalean

Diru-xahutzea, espekulazioa eta aldi-baterako azpiegitura garestien eraikuntza saihesteko, ARALAR GASTEIZEK geltoki intermodala RENFERen geltokiak betetzen duen lekuan eraikitzea proposatzen du.

Trenbidea oraingo ibilbidearen azpitik helduko litzateke, 300.000 metru karratu lurzorua askatzen. Lurzoru honen zati bat erabiliko da intermodal berrirako sarbide korridore berri bat eraikitzeko, baita hiriko hegoaldea berriro isolaturik ez geratzeko beharrezkoak diren ekipamendu eta azpiegiturak instalatzeko ere. Korridorea ahalmen handiko hiri-autobusen linea berri batek erabili ahal izango du, geltoki berria hiriko auzo guztiekin lotzen.

Geltokia guztiz intermodala izateko, tranbiak Unibertsitate-Campusera iritsi beharko du, eta geltokia abiabuntu edo helburu izango duten joan-etorriak oinez eta bizikletaz egitea erraztuko da, baita kotxez (taxi eta ibilgailu pribatuez) ere, azken era honek lehenetsun txikiena izango badu ere.

Aralar Araba	Aralar Bizkaia	Aralar Gipuzkoa	Aralar Nafarroa
Izarduy komandantea 7 01006 Gasteiz Tel: 945 15 42 20 Faxa: 945 15 42 20 www.aralar-araba.net araba@aralar.net	Aretxabaleta 4, 1. 48010 Bilbo Tel: 94 421 28 56 Faxa: 94 421 25 01 bizkaia@aralar.net	Pedro Egaña 10 20006 Donostia Tel: 943 47 19 55 Faxa: 943 47 06 36 gipuzkoa@aralar.net	Aduanaren txokoa 16-18 31001 Iruñea Tel: 948 20 63 62 Faxa: 948 20 60 03 nafarroa@aralar.net
www.aralar.net			



Kokapen honek ez du hiriko berdegunerik minduko, eta erdialdean egonda, komunikazioa garraio-publikoaz bermatzen da. Era honetan, Geltoki Intermodala Arriagako parkearen inguruan eraikitzeak sortuko lituzkeen trafiko arazoez libre geratuko litzateke Gasteizen gehien saturatu ohi den gunetariko bat, Forondako atea eta Amerika Latinako biribilgunea, hain zuzen.

Intermodalitate osorako bidean

ARALAR GASTEIZek proposatutako konponbideak gaur egun Gasteizen intermodalitatea osatuko luketen garraio-bide guztiak kontuan hartzen ditu:

- Trena
- Hiriarteko autobusak
- Hiriko autobusak
- Tranbia
- Bizikleta
- Oinezkoak
- Ibilgailua

Funts publikoak behin betiko ekipamenduak eraikitzeko

Era berean, ARALAR GASTEIZen ustez, diru-xahutzea saihesteko, funts publiko guztiak behin betiko azpiegiturak finantzatzeko erabili behar dira, alternatiba honek proposatzen duen bezala:

- Geltoki Intermodala Dato kalean.
- Trenbidearen lurperatzea gaurko ibilbidearen azpitik, eraikiko diren 5'5 kilometroko luzaerako tuneletatik.
- Hiri eta hiritarteko autobusek erabiliko duten korridore berria, lurperatzeak askatuko duen lurzorua gainean.
- Aparkalekuak geltoki berriaren gertu, lurperatzeak askatutako lurzoruan eraikita.
- Tranbia-adar berri bat Unibertsitate-Campuseraino.

Araral Araba	Araral Bizkaia	Araral Gipuzkoa	Araral Nafarroa
Izarduy komandantea 7 01006 Gasteiz Tel: 945 15 42 20 Faxa: 945 15 42 20 www.aralar-araba.net araba@aralar.net	Aretxabaleta 4, 1. 48010 Bilbo Tel: 94 421 28 56 Faxa: 94 421 25 01 bizkaia@aralar.net	Pedro Egaña 10 20006 Donostia Tel: 943 47 19 55 Faxa: 943 47 06 36 gipuzkoa@aralar.net	Aduanaren txokoa 16-18 31001 Iruñea Tel: 948 20 63 62 Faxa: 948 20 60 03 nafarroa@aralar.net

ABIADURA HANDIA

ARALAR-en jarrera azpiegitura honen kontra eta honen zergatiak ezagunak dira. ARALAR GASTEIZek intermodal eta lurperatzearen inguruko eztabaida ez dela asmo txarrez erlazionatu behar AHTaren heltze hipotetikoarekin mantentzen du. Gure Udala azpiegitura hauen guztien arteko menpekotasun harremana finkatzen saiatu da, Gasteizera trenbidearen lurperatze eta geltoki intermodala AHT-aren esku etorriko delako sineskeria sortzeko asmoz. Lurperatze eta intermodalaren onurak AHT-aren heltzearekin nahasten saiatu delako diagnostikoa konpartitzen dugu beste herri elkarte batzuekin. Objektiboki, azpiegitura horrek, AHT-ak, ez dio inolako onurarik erakarriko ez gure hiriko gizarte gehiengoari, ezta Euskal Herrikoari ere.

Hausnarketa honen barruan jarri behar da ARALAR GASTEIZek, dokumentu honen bidez, aurkezten duen proposamen alternatiba.

Eskenatoki txarrena, AHT-aren heltzea Gasteizera, kontuan hartuz behartuta izanez gero, guk uste azpiegitura horrek izan beharko lukela gure hirira moldatzen dena, eta ez kontrakoa, batzuk nahi dutenaren moduan.

Planteatu den erantzukizun-ariketa jarraituz, gure buruak antolatu behar ditugu gizarteari erantzun bat emateko, eskenatoki txarrena gauzatzekotan eragina eta gerta litezkeen ondorio kaltegarriak ahalik eta gehien murrizteko, bai lurralde, bai hiri, eta bai biztanleentzat. Honek ez du esan nahi "euskal Y"-arekiko jarrera aldatu denik. ARALAR-ek azpiegitura honen kontra adierazten eta ekiten jarraituko du, baita bere eraikuntzak sortuko dituen herrialde, hiri eta biztanleentzako kalteak salatzen ere. Modu berean, eta jarrera arduratsutzat hartzen dugun planteamendutik hartuta, izan litezkeen kalteei, eta izango ote direnei ere irtenbide eta alternatibak aurreikusten ahaleginduko du.

AHT-a helduko balitz

Kasu honetan, AHT-ak betiko trenarentzat proposatzen dugun lurperatutako trenbide beratik sartu beharko luke, gaurko trenbidearen azpitik, etorkizuneko Geltoki Intermodalan gelditzeko, Dato kalean. "Euskal Y" eta "ancho Iberico" izeneko trenbideen lotura Zurbano herri eta, beharbada, Arkaute inguru bitarteko tarte baten bidez egingo litzateke. Tarte honen proiektua ADIF-ek eta Fomento Ministerioak daukaten plangintzaren barruan dagoen ez dute oraindik baieztatu. Horrela izango balitz, erabil liteke, baina tarte honek bermatu beharko luke Salburuako urtegien urdun, flora eta faunaren zaintzea eta eraginik eza gune natural honetan, Ramsar hitzarmenaren barruan dagoena eta Natura 2000 sarean parte hartzeko proposatu dena.

Aralar Araba	Aralar Bizkaia	Aralar Gipuzkoa	Aralar Nafarroa
Izarduy komandantea 7 01006 Gasteiz Tel: 945 15 42 20 Faxa: 945 15 42 20 www.aralar-araba.net araba@aralar.net	Aretxabaleta 4, 1. 48010 Bilbo Tel: 94 421 28 56 Faxa: 94 421 25 01 bizkaia@aralar.net	Pedro Egaña 10 20006 Donostia Tel: 943 47 19 55 Faxa: 943 47 06 36 gipuzkoa@aralar.net	Aduanaren txokoa 16-18 31001 Iruñea Tel: 948 20 63 62 Faxa: 948 20 60 03 nafarroa@aralar.net

EZTABAIDAREN MOMENTUA

ARALAR GASTEIZek biztanleen irudi eta haien zerbitzura izango den hiri eredua eraiki nahi du, eta ez sufritzen dugun kasta agintzailearen irudi, gorra dena, epe labur eta begi-puntu motzeko oportunitate politikoak itsuturik dagoena, espekulazio enpresarial eta ekonomikoaren interesen zerbitzura balego bezala, eta ez aukeratu dituen herriaren zerbitzura.

Defendatzen dugun hiri eredura hurbiltzeko asmoz, datozen urteotan egin nahi dituzten azpiegituren erdiespenak eztabaida sakon eta irekia eskatzen du herritarrok parte har dezagula. Argibide publikorik eza, erantzunik gabeko galdera ugariak eta itxitasun instituzionala nabargarriak badira ere, ARALAR GASTEIZek bere ekarpen propioa egin nahi du. Ekarpen osagabea, baina eztabaidan parte hartu nahi dutenen analisi, kritika eta ekarpenez aberasteko nahian, baita oinarritzat erabiltzeko ere, beste proposamen batzuen batera, lurperatze eta geltoki intermodalaren proiektua osatzeko, ingurunea errespetatu eta Gasteizko gehiengo sozialaren beharrak betetzen dituen.

Aralar Araba	Aralar Bizkaia	Aralar Gipuzkoa	Aralar Nafarroa
Izarduy komandantea 7 01006 Gasteiz Tel: 945 15 42 20 Faxa: 945 15 42 20 www.aralar-araba.net araba@aralar.net	Aretxabaleta 4, 1. 48010 Bilbo Tel: 94 421 28 56 Faxa: 94 421 25 01 bizkaia@aralar.net	Pedro Egaña 10 20006 Donostia Tel: 943 47 19 55 Faxa: 943 47 06 36 gipuzkoa@aralar.net	Aduanaren txokoa 16-18 31001 Iruñea Tel: 948 20 63 62 Faxa: 948 20 60 03 nafarroa@aralar.net
www.aralar.net			